


2015ean GURASO IZANDAKOEK HIZKUNTZEN INGURUAN DITUZTEN IRITZI, JARRERA ETA KEZKAK.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

AURKIBIDEA

0. SARRERA	2
1. METODOLOGIA OHARRAK	3
3.0. LAGINAREN EZAUGARRIAK	3
2. ONDORIO NAGUSIAK	8
3. EMAITZAK	12
3.1. GURASOEN EZAUGARRI SOZIOLOGIA	12
3.2. GURASOEN ARTEKO EUSKARA ERABILERA ETA UMEEN ERAGINA	16
3.3. SEME ALABEI EGITEN ZAIEN HIZKUNTZA FAMILIAN	19
3.4. GURASOEN EUSKARA ERABILERA GAINONTZEKO EREMUETAN	25
3.4.1. GURASOEN IRAKASLEEKIN	25
3.4.2. GURASOEN LAGUNEKIN	27
3.5. UMEEN HIZKUNTZA OHITURETAN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK, GURASOEN HAUTEMATEA	28
3.6. GURASOEN KEZKAK SEME-ALABEN HIZKUNTZEN KUDEAKETAN	30
3.7. ESKOLA ERABAKITZEKO FAKTOREAK	35
3.8. EUSKARA SUSTATZEKO PROGRAMEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA	37
3.9. GURASOEN MOTIBAZIOA/ASMOA EUSKARA IKASTEKO	38

0. SARRERA

Txosten honetan Arabako gurasoek, 2015ean umeak izan dituztenak, betetako inkesta baten erantzunen emaitzak aurkezten dira. Inkesta erantzuteko Arabako Diputazioko Euskararen Foru-Zerbitzua, Vitoria-Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua eta Aztiker harremanetan jarri dira Araban Haur Hezkuntzako urte beteko gelak dituzten ikastetxe guztiekin. Haien elkarlana eskatu eta ondoren gurasoi inkesta erantzuteko gonbidapena bidalita, eurek erabaki dute erantzun edo ez¹. Erantzun dutenen iritzi eta portaeretan oinarrituta dago lan hau.

Hiru atal nagusi eduki ditu inkestak edo saiatu gara arkatzen. Batetik, guraso hauek duten euskara gaitasuna eta hainbat alorretan dituzten euskara erabilerak neurtu dira. Bigarren, umea izan eta ondoren haien hizkuntza portaeran aldaketarik egon den saiatu gara neurtzen ere. Eta azkenik, umeak euskarazko hizkuntza ereduetan eskolaratzearekin zerikusia duten iritziak edota kezka ezberdinek benetan duten zabalpena neurtzen saiatu gara. Guzti hori, esan bezala, galdera sorta baten bidez (ikus galdera sortak I. eranskinean).

Txosten honetan, beraz, galdera sorta horietan jasotako informazioaren emaitzak aurkeztuko ditugu.

¹ Txosten honen lehen atalean azaltzen dugu prozedura xehetuta.

1. METODOLOGIA OHARRAK

1.1. LAGINAREN EZAUGARRIAK

Txosten honetan jaso diren datuak inkesta baten emaitzak dira. Inkesta honek 2015ean Araban guraso izan direnak izan ditu helburu. Haien erantzunak jaso ahal izateko Arabako Diputazioko Euskararen Foru-Zerbitzua, Vitoria-Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua eta Aztiker 2015ean jaiotako umeak matrikulatuta dituzten zentroetara jo dugu, Haurreskola Patzuergoa, Udal Haurreskolak, Ikastolak eta bestelako haur eskola pribatuak. Bertan, guraso horien helbide elektronikoak eskatu dira eta nahi izan duenak eman du. Ondoren, email zerrenda guztiari inkesta online betetzeko mezua bidali zaio eta aldi berean, inkesta hau betetzeko ezaugarriak betetzen zituen ezagunari lotura birbidaltzeko eskatu zaie.

Beraz, hemen jaso diren datuek ez dute Arabako gurasoen errealitatea deskribatzen. Ez dute unibertso zabalago bat ordezkutzen. Izan ere, laginketa prozedurarik ez da egon, eta "autoaukeraketa" egon da, hau da, guraso bakoitzak erabaki du parte hartu edo ez inkesta honetan. Hala ere, datu soziodemografikoak eta gurasoen euskara ezagutza eta erabilerari dagokionean bestelako datuekin erkatuta, horietan alde handirik ez dagoela esan daiteke, eta ondorioz, hemen jasotzen diren datuak errealitate horretarako hurbilketa bat izan daitezkeela uste dugu. Lagin honen eta unibertsoko datuen artean, hainbat aldagaian aldeak egon dira ordea eta ondorioz horiek tratamendua behar izan dute, jarraian azaltzen dugun bezala.

Horrela, erantzun tasa oso altua izan da. 2015ean jaiotako 3.130 umeetatik, 662 familiek erantzun dute, zeintzuetan 2015eko 680 ume dauden. 662 familia horien banaketa desorekatua izan da, unibertsoko parametroei dagokienez.


	Unibertsoa (2015)		Lagin errealia	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
Matrikulatu gabe	1.700	54,3	111	16,8
Publikoa Haurreskola Patzuergoa	877	28,0	415	62,7
Publikoa Udal Haurreskolak	146	4,7	87	13,1
Pribatua Ikastola	79	2,5	45	6,8
Pribatua Erlijosoa	139	4,4	4	0,6
Pribatua beste	189	6,0	0	0,0
Guztira	3.130	100,0	662	100
Ez 2015korik			26	

Datu iturri nagusia Haurreskola Patzuergoko familiak izan dira. Lagin osoaren %63a osatu dute haiek, unibertsoaren %28a izanik. Bigarrenez, matrikulatu gabeko umeen familiak izan dira, 111 guztira. Eta hirugarren lekuan, Udal haurreskoetatik jasotako informazioa izan da. Ia informaziorik ez da jaso eskola kontzertatu erlijiosoetatik eta bestelako haurreskola pribatuetatik.

Ondorioz, batetik jasotako datuak unibertsorekiko ahalik eta hurbilenak izateko eta bestetik egondako hutsuneen ondorioz, laginetik eskola kontzertatu erlijiosoetako eta bestelako haurreskola pribatuetako datuak kendu dira eta gainontzekoak haztatu dira. Era berean, ez dira kontuan hartu 2015ean jaiotako umerik ez dituzten familien erantzunak.

	Unibertsoa (2015)		Lagin haztatua	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
Matrikulatu gabe	1.700	60,7	397	60,8
Publikoa Haurreskola Patzuergoa	877	31,3	203	31,1
Publikoa Udal Haurreskolak	146	5,2	33	5,1
Pribatua Ikastola	79	2,8	20	3,1
Pribatua Erlijiosoa				
Pribatua beste				
Guztira	2.802	100,0	653	100


Ume horiek zein hizkuntza eredutan matrikulatuta dauden galdetzean, nahiz eta Haurreskola Patzuergoan, Udal Haurreskoletan edo Ikastolan egon, printzipioz denak D ereduan funtzionatzen dutenak, hiru laurdenek baino gehiagok beste eredu bat erantzun dute, B eredu eta "Beste bat" nagusiki.




ZEIN HIZKUNTZA EREDUAN?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
A (dena gaztelaniaz, euskara ikasgai gisa)	2	0,9
B (euskaraz eta gaztelaniaz)	41	16,3
D (Dena euskaraz, gaztelania ikasgai gisa)	187	73,9
Beste bat	23	9,0
Guztira	254	100,0


Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.




Bestalde, erantzun dutenek, batez beste "sema-alaba bat eta erdi dituzte". Erdia baino gehiago seme-alaba bakarra, %35ak bi eta ia %10k hiru.




Lehen seme-alabaren jaiotze urtea kontuan hartuta, gehiengoa 2015ean jaiotakoak dira. Horrek esan nahi du, inkesta hau erantzun dutenetatik, hamarretik lauk bigarren edo hirugarren anai-arrebak direla 2015ean jaio direnak. Eta lehenak direnak, seme-alaba bakarrak direla gehienak. Bigarren multzo nagusia 2012an jaiotakoak dira (%15), beraz, 2015an jaiotako ume askoren anai-arreba nagusiak hiru urteko tartean mugitzen dira. Urte bat gora-behera kontuan hartzen baditugu, ia laurdena da (%24,6).




Gurasoen ezaugarriei dagokienean, gehiengoa (%57) 36 eta 40 urte artean kokatzen da. Hurrengo multzoa (%22,1), piska bat gazteagoa da, 31 eta 35 urte artekoa eta hirugarren multzoa, %16,1, 41 eta 45 urte artekoa.



Ikasketa mailari dagokionean, goi mailako ikasketak dituzte %67,7k eta bigarren mailakoak ia laurdenak.




Jaioleku nagusia Araba da, hamarretik zazpientzat horrela da. Bigarren jaioleku nagusia Bizkaia (%14,2) eta Estatuko beste leku bat (%6,1) eta Gipuzkoa dira hurrenak.




Gehienak, modu batera edo bestera enplegu merkatuan ari dira. Hamarretik bederatzita bertan daude.

Gaur egun, enplegu merkatuan ari zara? (enpleguarekin edo langabetua) [(n) 1.246]



Eta horietatik, erdia baino gehiago (%53,1) besteren kontura ari dira lanean. Hamarretik bi funtzionarioak dira, bat norbere kontura edo autonomia da eta beste hainbeste langabezian aurkitzen da.



2. ONDORIO NAGUSIAK

Emaitzen interpretazioa egiterako orduan, kontuan hartu behar da, nahi izan duten gurasoek erantzun dutela, hau da, autoa aukeraketa egon dela. Prozedura horrek ezinbestean, desorekak sortzen ditu. Egondako desoreka nagusiak estatistikoki orekatu dira, baina hala ere beste batzuk mantendu dira, komentatuko ditugu orain.

Aldagai soziodemografikoekin alderatuta, biztanleria orokorrarekiko desoreka dago, lanean ari diren gurasoak eta ikasketa maila altua dutenak dagokiena baino presentzia handiagoa dutelako laginean.

Horretaz gain, inkesta erantzun duten aitak eta amak alderatuta, haien artean ezberdintasun hauek nabari dira: aiten artean gehiagok izan zuten euskara lehen hizkuntza gisa, amen artean baino. Baina egun, elebitasuna lortu dutenak gehiago izan dira amak aitak baino. Bestela esanda, aiten eta amen arteko alde handiena, gaztelera soilik jaso zutenen artean dago. Horietan, ama gehiago bihurtu dira elebidun aitak baino.

Aldiz ia euskaldunen artean, aitek dute euskara gaitasun handiagoa. Ondorioz, horrek mailaketa moduko bat sortu du aiten eta amen artean. Orokorrean, hierarkia bat egingo bagenu euskara ezagutza aldetik, presentzia handiagoa edukiko lukete amek goiko mailan, aitek erdi-goiko mailan eta amek berriro erdiko mailan. Azkenik, euskara ez dakitenen artean, aitak dira gehiago.

GURASO TIPOLOGIA

Inkestaren emaitzak aztertuz gero, politikak zuzendu ahal izateko lau guraso tipologia nagusi antzematen dira:

Lehen hiru multzoak tamaina antzekoak dira, %25aren ingurukoak:

- 1.- **Bikote mixto euskaldunak:** Gurasoetako bat elebiduna da eta besteak euskara ulertzen du. Kasu hauetan, gurasoetako batek euskara ez menperatzeak hizkuntza ohituretan eragin handia duela ikusi da, nahiz eta orokorrean euskararekiko jarrera oso positiboa den. Euskara menperatzen ez duen gurasoaren maila igotzea eta besteen hizkuntza ohituretan eragitea litzateke euskara erabilera igotzeko bidea.

Bestalde, kasu hauetan, ama denean euskalduna, aita euskalduntzen du, alderantziz gutxiago gertatzen da. Itxuraz, amaren harremana umearekin euskaraz eraikitzeak eragin handiagoa du aitaren jarreraren, alderantziz baino (aita ia euskaldunen artean %13,2k egiten diote beti euskaraz umeari. Ama ia euskaldunen artean ez dago beti euskaraz egiten duenik).

Ama ia euskaldunen kasuan, umeeekin ez, baina hezitzaileekin daudenean, orduan bai euskarara jotzen dute neurri batean (%12,8 beti euskaraz).

2.- Bi gurasoak elebidunak. Hauen kasuan, testuinguru askotan ez dute euskara erabiltzen, aukera izanik ere. Erabilera altuena seme-alabaren irakaslearekin dute eta baxuena ohiko lagunekin.

3.- Biak ia euskaldunak. Multzoz hau ere handia da. Euskara ikasteko jarrera agertu dute eta elebidunei (seme-alabak barne) euskaraz aritzea erraztu ahal diete, funtzio batzuetan behinik behin. Horrek gainera, haien hizkuntza gaitasunean ere eragina izango luke, hori hobetuz.

Laugarren multzoa, txikiagoa da, %15ekoa:

4.- **Bikote "mixto erdaldunak"**: gurasoetako bat ia euskalduna eta bestea erdalduna. Euskararekiko jarrera positiboa da, eta euskara ikasteko ere jarrera irekia dute. Horretarako, ordutegi malgutasuna da guraso hauentzat gako nagusia. Ondoren datoz eskolen metodologia eta prezioa.

GURASOEN EUSKARA ERABILERA ETA UMEAK IZATEAREN ERAGINA

Umeak izateak, haiek presentzia (zuzena edo ez-zuzena) duten lekuetan euskara erabilera igo egiten du, ez ordea beraien presentzia ez dagoenean (gurasoen lagunartean antzera jarraitzen du). Gurasoek haien artean edo lagunartean antzera egiten dute euskaraz. Lagunartean beti euskaraz %8,5 eta gehienetan euskaraz %17,0 egiten dute eta gurasoen artean beti euskaraz %8,8 eta gehienetan euskaraz %15,3). Aldiz, erabilera hori asko igotzen da umeari zuzentzen direnean (beti euskaraz %39,8, gehienetan euskaraz %11,3) eta zertxobait gehiago umeen irakasleekin (beti euskaraz %45,1 eta gehienetan euskaraz %9,0).

Gurasoen arteko hizkuntza erabileran seme-alabak izateak eragin txikia du euskararen alde. Datuetan orain euskara zertxobait gehiago erabiltzen dutela ikusten da. Aldaketa nagusia soilik gaztelaniaz egiten zutenen artean eman da. Beti gazteleraz egiten zutenak %48,5 izatetik %32,4 izatera pasa dira eta zertxobait (gehiago gazteleraz) euskaraz egiten dutenak %18,7 izatetik %35,3 izatera pasa dira, azken hauek orain multzo nagusia direlarik. Euskara maila batean edo bestean egiten zutenak, berdint jarraitzen dute.

Aldiz, umea izateak, gehienetan ez du eraginik **lagun arteko** hizkuntza ohituretan (%60,6), eta eragina izaten duenean proportzio antzekoetan banatzen da euskara gutxiago eta gehiago erabiltzen dutenen artean, euskara gehiago erabiltzen dutenak zertxobait gehiago badira ere.

UMEAK ESKOLARATZEAK ERAGIN ARGIA DU GURASOEN UMEEKIKO EUSKARA ERABILERAN

Umeak izateak baino eragin handiagoa du umeak eskolaratzeak. Eskolan hasi arte, umeari beti euskaraz %24,6k egiten zien eta ondoren %39,6k. Beti gazteleraz egiten dieten gurasoen proportzioak ia 27 puntu egiten ditu behera.

Horrekin bat doaz guraso euskaldunen hautemateak ere. Nagusiki ez dago alderik umea izan dutenetik euskararen erabileran (%57,3). Baina, aldea izan denean, nabarmen euskaren alde izan da eta proportzio altuan gainera (%41,7).

UMEEN HIZKUNTZA OHITURETAN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK, GURASOEN HAUTEMATEA

Guraso gehienak arduratzen ditu seme-alaben hizkuntza ohiturek. %56,7ri asko eta %29,7ri nahiko.

Hizkuntza ohituretan gehien eragiten duen faktorea, gurasoen iritziz, neurtutako hiruren artean, haurrak haien inguruan entzuten duten hizkuntza da. Hau da, Euskara maiz entzuten badute, ziurrenera haiek ere euskaraz egingo dute.

GURASOEN KEZKAK SEME-ALABEN HIZKUNTZEN KUDEAKETAN

Irakurketa orokor bat eginez, neurtutako esaldi guztietatik, atxikimendu gehien lortu dutenak hizkuntzak eta zehazki euskara balioan jartzen dituzten esaldiak dira. Ondoren datoz kezka ezberdinak eta horien artean bi-hiru bloke ezberdinu daitezke. Kezka edo zalantza sortzen dutenak, nahiz eta oso altua ez izan. Eta kezka gutxi edo bat ere sortzen ez dituztenak.

Horrela, **balorazio altuena jaso duen esaldia, besteengandik bereizten da** batez besteko nota oso altuagatik. Egungo jendartean **hizkuntzak ikasi edo jakitearen inguruko ikuspegi positiboa** islatzen du, hizkuntza horiek edozein direlarik, printzipioz. Kasu honetan, gainera, esaldian ez da islatzen hobari material bat edo zuzenean lan munduari lotutakoa. Horrela, *Hizkuntza bi edo gehiago jakitea abantaila da haurraren garapen intelektualerako* esaldiak 9,12ko adostasun maila lortu du batez beste.

Zehatzago, euskara balio positibo batekin lotzen duen esaldia honakoa da: *Euskara gizarte-kohesio eta integratzaile tresna baliagarria da*. Batez besteko positiboa eskuratu du honek ere (6,8), baina aurrekotik distantzia handira, eta esaldi guztiak kontuan hartuta, zazpigarren lekuan geratu da. Beraz, ikuspegi orokorra positiboa edo adostasunezkoa bada ere, adostasun hori ez da aurreko esaldian bezain intentsua.

Atxikimendu gehien jaso duen bigarren esaldia, euskarari eta eskolari lotuta doa. **Eskola tresna baliagarria** eta egokia da haurrek **euskara ikas dezaten** esaldiak 8,44ko batez bestekoa lortu du, aurreko esalditik puntu erdi baino gehiagora beraz. Dena dela, bigarren esaldia izanik eta lortu duen balorazioa ikusita, guraso gutxik jartzen dute zalantzan hori horrela denik.

Hurrengo bi esaldiek zerikusi handia dute (euskararen beharrezkotasuna) eta batez besteko antzekoa lortu dute. **Euskara beharrezko hizkuntza da eta Beharrezkoa da haur guztiek euskara ikastea**. Aldea txikia bada ere, gurasoek apur bat gehiago baloratzen dute euskara gure jendartean beharrezko hizkuntza gisa (edozein dela horren atzetik dagoen arrazoia), ume guztiek euskara ikasteko beharra baino. Dena dela, bi esaldiek lortu dute zazpitik gorako batez bestekoa.

7tik gorako batez bestekoarekin eta **bosgarren lekuan, eskakizun** bat dago: **Haurrek euskaraz hitz egiteko toki eta ekintza gehiago izatea** gustatuko litzaiguke. Esaldi hau, beste bi hauekin lotu daiteke: *Normalean ez diot arretarik jartzen nire umeentzako diren gauzak (marrazki bizidunak, musika, liburuak, antzerkiak...) zein hizkuntzan dauden eta Nire seme-alabentzat euskarazko liburu eta beste materialak non eskuratu ez dakit*. Lehenengoak 7,15eko batez bestekoa lortu du eta azken biak 4,07koa eta 2,76koa. Kontuan izanik azken hauek negatiboan daudela idatzita, interpreta daiteke **gurasoek nolabaiteko arreta jartzen dutela haien seme-alabentzat diren gauzak zein hizkuntzan dauden, baita badakitela non**

eskuratu beharrezkoak zaizkien materialak ere, baina nahi baino gutxiago lortzen dutela euskaraz.

Ageri den **lehen kezka, elebidunak ez diren gurasoek** seme-alabak ikasketetan laguntzeko aukeraren ingurukoa izan da (*Arduratzan nau etorkizunean nire seme-alaba ezin lagundu ahal izatea bere ikasketetan*). 6,81eko batez bestekoa eskuratu du eta 3,4ko desbiderazioa. Horrek zera esan nahi du, gurasoen artean bi ikuspegi daudela, eta batzuk lasai dauden arren, guraso multzo batek kezka bizi duela gai hau. Guraso horien ia erdiak (%49,4) du 8 eta 10arteko kezka, ia laurdenak 5etik beherako kezka duelarik.

Gainontzeko kezka guztiak 5etik behera kokatu dira.

Euskaraz ikasteagatik gaztelaniaz eduki dezaketen gaitasunean ondorio txarrik edukiko dutenik ez dute uste gurasoek, ez euskaraz irakurtzen ikasten dutenez, ez dute ondo ikasten gaztelaniaz irakurtzen (3,11) ezta *Nire seme-alabak euskaraz ikastea, etorkizunean gaztelaniaz ikasketak egiteko zailtasunak izango ditu ikasteko orduan* (2,74).

Azkenik, kezka gutxien sortarazte duten gaiak, gurasoen euskara gaitasuna eta haien hizkuntza ohituren ingurukoak dira: *Ez dakit nola lagundu dezakedan nire seme-alabak euskara ikasten* (4,61), *Euskara ez dudanez oso ondo hitz egiten, ez dakit nire seme-alabekin euskaraz hitz egin behar dudan edo ez* (4,07) eta *Etxean, gurasoetako bat euskalduna izanda eta bestea ez, ez dakigu zein hizkuntzan egin seme-alabari* (2,27).

EUSKARA SUSTATZEKO PROGRAMEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

Orokorrean euskara sustatzeko programen ezagutza ez da oso altua. Ezagunenak *Praktikatzeko saioak (mintzalagun..)* dira, %35,9k ezagutzen dituztelarik. Ondoren datoz *Lantegiak edo tailerrak familian egiteko (jolasak, ipuinak, kantuak...)* %23,2arekin eta *Hurrekin erabiltzeko material bildumak* %17,3az. *Euskara familian erabiltzeko programek (aisialdia gurasoekin mendira, igandeak jai)* oso ezagutza maila txikia dute (%5,9).

Aldiz, programa horiek ezagutzen dituztenen artean, balorazioak oso positiboak dira orokorrean. *Euskara familian erabiltzeko programak (aisialdia gurasoekin mendira, igandeak jai)* eta *Lantegiak edo tailerrak familian egiteko (jolasak, ipuinak, kantuak...)* ia guztiek baloratu dituzte oso ondo edo ondo batekin. Kontrako aldean, balorazio ona jaso badu ere, euskara praktikatzeko saioek jaso dute balorazio txikiena (%78,5ek oso ondo edo ondo).

3. EMAITZAK


3.1. GURASOEN EZAUGARRI SOZIOLINGUISTIKOA

653 familia hauetan, guztietan dago ama, baina 27 kasutan, ama bakarrak dira, beraz, ez dago aitaren edo beste amaren presentziarik.

ZUREKIN BIZI DEN BIKOTERIK, SENARRIK, EMAZTERIK... BADUZU?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	626	95,9
Ez	27	4,1
Guztira	653	100,0

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.



Amen lehen hizkuntza gaztelera izan da nagusiki (%78,7). Ondoren, ia proportzio berdinetan banatzen dira, euskara soilik izan zutenak (%8,6), biak izan zituztenak edo beste hizkuntza bat izan zutenak (%6,3 bietan).


Aiten kasuan ere, gaztelera izan da nagusiki (%79,5) lehen hizkuntza hori. Ondoren, euskara soilik izan zutenak nagusitzen dira (%13,2), biak izan zutenak %6,1 dira eta beste hizkuntza bat izan zutenak %1,1.

Hau da, aiten lehen hizkuntza amen proportzio antzekoetan banatzen da, proportzio nagusiei dagokienean. Hala ere, badira alde txiki batzuk ere. Aiten kasuan euskaldunen proportzioa zertxobait altuagoa da eta "beste hizkuntza" lehen hizkuntza gisa eduki dutenen proportzioa txikiagoa dago.

LEHEN HIZKUNTZA

	Ama	Aita
Euskara	8,6	13,2
Biak	6,3	6,1
Gaztelera	78,7	79,5
Beste bat	6,3	1,1
Guztira	100,0	100,0
(n)	652	626

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.



Hala ere, amen egungo euskara gaitasuna kontuan hartuta, ia erdiak (%47,8) elebidunak dira. Hamarretik lauk euskara ulertzen dute eta %12,3k ez dute euskara ulertu ere egiten.


Inkesta erantzun duten aiten egungo euskara gaitasuna kontuan hartuta, jatorrizkoa (lehen hizkuntzaren datua alegia) hobetzen duten arren, amen elebitasunaren azpitik daude egun. Aiten herena da elebiduna (%34,4), ia erdiek (%48,6) euskara ulertzen dute eta %17k ez dute euskara ulertu ere egiten.

Ama eta aita ia euskaldunen artean ordea, euskara gaitasun altuagoa dute (euskara ez hitz egin arren, ondo ulertzen dutenen proportzioa altuagoa da) aitek amek baino.

HIZKUNTZA GAITASUNA

	Ama	Aita
Euskalduna	47,8	34,4
Ia Euskalduna	39,9	48,6
Erdalduna	12,3	17,0
Guztira	100,0	100,0
(n)	653	626

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezak.




Bi erantzunak gurutzatzean, euskara lehen hizkuntza izan zuten ama guztiak euskaldunak dira egun, bi hizkuntzak izan zutenen hamarretik bederatzia eta soilik gaztelera izan zutenen %42a.

AMAREN HIZKUNTZA GAITASUNA ETA LEHEN HIZKUNTZA

	Euskara	Biak	Gaztelera	Beste bat	Guztira
Euskalduna	100,0	90,5	42,3	0,0	47,7
Ia Euskalduna	0,0	9,5	46,4	43,9	39,9
Erdalduna	0,0	0,0	11,3	56,1	12,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
(n)	56	42	513	41	652

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezak.




Aiten kasuan, euskara soilik edo gaztelaniarekin batera lehen hizkuntza izan zuten aita ia guztiak elebidunak dira egun. Gaztelera jaso zutenen artean hamarretik sei euskara ulertzen dute eta bi elebidun bihurtu dira.

Hau da, alde handiena aiten eta amen artean, soilik gaztelera jaso zutenen artean dago. Horietan, ama gehiago bihurtu dira elebidun aita baino.

AITAREN HIZKUNTZA GAITASUNA ETA LEHEN HIZKUNTZA

	Euskara	Biak	Gaztelera	Beste bat	Guztira
Euskalduna	96,4	97,3	19,7	14,3	34,4
Ia Euskalduna	3,6	2,7	60,0	14,3	48,6
Erdalduna	0,0	0,0	20,3	71,4	17,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
(n)	83	39	498	7	627

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezak.



Horrela, bi gurasoak dauden familietan, biak kontuan hartuta, hiru multzo nagusi daude ia proportzio berdinekin, %25aren ingurukoak: gurasoetako bat elebiduna eta besteak euskara ulertzen du ("mixto euskaldunak"), bi gurasoak elebidunak eta biak ia euskaldunak.


Laugarren multzoa, %15ekoa, gurasoetako bat ia euskalduna eta bestea erdalduna direnek osatzen dute ("mixto erdalduna").

Bi gurasoak erdaldunak direnen proportzioa %6ra ez da iristen.

GURASO TIPOLOGIA

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Biak euskaldunak	159	24,3
Mixto euskalduna	176	27,0
Bat euskalduna bestea erdalduna	9	1,4
Biak ia euskaldunak	142	21,7
Ia euskalduna eta erdalduna	102	15,6
Biak erdaldunak	37	5,7
Amabakarra euskalduna	24	3,7
Amabakarra ia euskalduna	2	0,4
Amabakarra erdalduna	1	0,1
Guztira	653	100,0

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezak.




3.2. GURASOEN ARTEKO EUSKARA ERABILERA ETA UMEEN ERAGINA²

Seme-alabak izan aurretik, euskara ulertu edota hitz egiten duten gurasoen artean gaztelera zen nagusi, hizkuntza bakar gisa (%48,5) edo euskara apur batekin batera (%18,7). Beti euskaraz egiten zutenak %7,6 ziren eta gehiago euskaraz %17,8.

SEME-ALABAREN BAT IZAN AURRETIK GURASOEN ARTEKO EUSKARA ERABILERA

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Beti euskaraz	27	7,6
Gehiago euskaraz	64	17,8
Bietan antzera	25	6,9
Gehiago gazteleraz	67	18,7
Beti gazteleraz	175	48,5
Beste hizkuntza bat	2	0,6
Guztira	360	100,0

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.
Euskaraz ongi edo zerbait hitz egiten dutenak




Biak elebidunak izanda ere, soilik %16,4k egiten zuten beti euskaraz haien artean. Gehiago euskaraz egiten zutenak %40ra hurbiltzen ziren. Gehiago gazteleraz edo beti gazteleraz egiten zutenak %35,2 ziren.

Beste tipologietan beti gazteleraz egiten zutenak nagusitzen dira erabat.

GURASO TIPOLOGIA ETA HAIEN ARTEKO EUSKARA ERABILERA SEME-ALABA JAIO AURRETIK

	Biak euskaldunak	Mixto euskalduna	Biak ia euskaldunak	Guztira
Beti euskaraz	16,4	0,8	0,0	7,8
Gehiago euskaraz	39,6	0,0	0,0	18,3
Bietan antzera	8,8	8,4	0,0	7,3
Gehiago gazteleraz	23,3	22,9	0,0	19,5
Beti gazteleraz	11,9	67,2	100,0	46,8
Beste hizkuntza bat	0,0	0,8	0,0	0,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
(n)	159	131	54	344

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.




² Atal honetako datuetan guraso erdaldunak ez daude sartuta, haien hizkuntza praktika erdalduna delakoan.

Behin seme-alabak izanda, egoera zertxobait hobetzen da euskararen alde, baina bereziki soilik gaztelera egitetik, euskaraz zerbait egitera pasatzen direlako (%48,5etik %32,4ra pasatzen dira lehenengoak, %18,7tik %35,3ra bigarrenak).

EGUN ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DUZUE BIKOTEAN EDO GURASOOK ZUEN ARTEAN?*

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Beti euskaraz	30	8,8
Gehiago euskaraz	52	15,3
Bietan antzera	28	8,2
Gehiago gazteleraz	120	35,3
Beti gazteleraz	110	32,4
Guztira	340	100,0

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezkak.
* Familia tipologia Biak euskaldunak, Mixto euskalduna eta Biak ia euskaldunak denean.




Bi gurasoak euskaldunak direnen artean, ez dago portaera argi bat. Batzuk euskara gehiago egitera pasatzen dira, baina beste batzuk gaztelera gehiago egitera ere bai. Aldaketa nagusia, beti gazteleraz egiten zutenen artean ematen da, euskaraz zerbait hitz egitera pasaz.

Aldaketa nagusia, gainontzeko gurasoen artean ematen da, beti gazteleraz hitz egitetik euskaraz zertxobait egitera pasaz proportzio esanguratsu batean.

GURASO TIPOLOGIA ETA HAIEN ARTEKO EUSKARA ERABILERA EGUN



	Biak euskaldunak	Mixto euskalduna	Biak ia euskaldunak	Guztira
Beti euskaraz	19,0	0,0	0,0	8,8
Gehiago euskaraz	32,3	0,8	0,0	15,3
Bietan antzera	10,1	9,3	0,0	8,2
Gehiago gazteleraz	34,2	34,1	41,5	35,3
Beti gazteleraz	4,4	55,8	58,5	32,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0
(n)	158	129	53	340

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezkak.



Seme-alaba izan aurretik eta egun gurasoen arteko hizkuntza erabilera zein den ikusita, euskara zertxobait gehiago erabiltzen dutela ikusten da. Aldaketa nagusia soilik gaztelaniaz egiten zutenen artean eman da. Beti gazteleraz egiten zutenak %48,5 izatetik %32,4 izatera pasa dira eta zertxobait (gehiago gazteleraz) euskaraz egiten dutenak %18,7 izatetik %35,3 izatera pasa dira, azken hauek orain multzo nagusia direlarik.

Seme-alabak izan aurretik eta ondoren, gurasoen arteko hizkuntzak erabilera.




Gurasoek emandako erantzunetatik, jasotako datu "errealetara" pasaz, gurasoen %28,6k erantzun dute inkesta euskaraz. Proporzio horrek ia bat egiten du gurasoen artean bietan berdin, gehiago euskaraz edo beti euskaraz egiten dutenen batuketarekin.

INKESTA ERANTZUTEKO HIZKUNTZA

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Euskara	187	28,6
Gaztelania	466	71,4
Guztira	653	100,0

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.



3.3. SEME ALABEI EGITEN ZAIEN HIZKUNTZA FAMILIAN³


Gurasoen artean baino euskara erabilera altuagoa dago gurasoen eta umeen artean. Horrela, umeei beti euskaraz egiten dieten gurasoak %24,6 dira eta gehiago euskaraz %9,9.

Beste aldean, gehiago edo beti gazteleraz %55 dira.

ESKOLAN HASI ARTE, UMEARI ZEIN HIZKUNTZAN

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Beti euskaraz	134	24,6
Gehiago euskaraz	54	9,9
Bietan antzera	51	9,5
Gehiago gazteleraz	118	21,7
Beti gazteleraz	181	33,3
Beste hizkuntza bat	6	1,1
Guztira	544	100,0

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.
Euskaraz ongi edo zerbait hitz egiten dutenak



Bi gurasoak elebidunak direnean bi herenek euskaraz egiten diote umeari. Soilik, gazteleraz egiten dionik ez badago ere, %11,3k gehiago egiten diete gazteleraz euskaraz baino.


Gurasoetako batek euskara menperatzen ez duenean, euskararen erabilera asko jaisten da. Horrela, bat euskalduna eta bestea ia euskalduna direnean, %17,6k egiten diote beti euskaraz eta %12,5 gehiago euskaraz. Bi multzo horiek ez dira agertzen bi gurasoak ia euskaldun direnean edo bat ia euskaldun eta bestea erdalduna denean.

³ Gurasoetako bat euskaraz zerbait egiteko gai denean.

ESKOLAN HASI ARTE ETA GURASO TIPOLOGIA

	Biak euskaldunak	Mixto euskalduna	Biak ia euskaldunak	Ia euskalduna eta erdalduna	Amabakarra euskalduna	Guztira
Beti euskaraz	62,9	17,6	0,0	0,0	8,3	24,4
Gehiago euskaraz	18,2	12,5	0,0	0,0	8,3	9,9
Bietan antzera	7,5	18,8	4,0	2,0	4,2	9,5
Gehiago gazteleraz	11,3	24,4	26,2	8,2	79,2	21,8
Beti gazteleraz	0,0	26,7	69,0	81,6	0,0	33,2
Beste hizkuntza bat	0,0	0,0	0,8	8,2	0,0	1,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
(n)	159	176	126	49	24	545

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.




Eskolaratu ondoren multzo nagusia beti euskaraz egiten dutenena da (%39,8). Ondoren gehiago gazteleraz egiten dutenak (%29,6).

EGUN, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DIOTE GURASOEK SEME-ALABEI?*


	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Beti euskaraz	290	39,8
Gehiago euskaraz	82	11,3
Bietan antzera	74	10,2
Gehiago gazteleraz	216	29,6
Beti gazteleraz	47	6,5
Beste hizkuntza bat	20	2,7
Guztira	729	100,0

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.
 *Aitak eta amak, zein hizkuntzan egiten dieten banatuta galdetu da. Euskaraz ongi edo zerbait hitz egiten dutenak



Nabarmen gora egiten du gurasoen euskara erabilera seme-alabekin, eskolaratu direnean.

Eskolaren eragina gurasoen euskara erabilera umeei*




*Egun aitak eta amak, zein hizkuntzan egiten dieten banatuta galdetu da.

Euskaraz dakiten edo zertxobait dakiten amen artean, %35,7k egiten dio egun beti euskaraz umeari. Beste %12,7k gehiago euskaraz. Kontrako aldean, gehiago gazteleraz egiten dutenak %28,9 osatzen dute eta beti gazteleraz %8,5.

EGUN, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DIO AMAK SEME-ALABEI?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Beti euskaraz	145	35,7
Gehiago euskaraz	52	12,7
Bietan antzera	42	10,4
Gehiago gazteleraz	118	28,9
Beti gazteleraz	34	8,5
Beste hizkuntza bat	16	3,8
Guztira	407	100,0

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.




Beti euskaraz egiten dutenen multzoa, ama elebidunek osatzen dute. Haien artean %46,5ak egiten du beti euskaraz. Euskalduna izanda ere, %21,8k gehiago egiten dute gazteleraz eta %4,2k beti gazteleraz. Ia euskaldunen artean, multzo nagusia gehiago gazteleraz egiten dutenena da (%52,1) eta beti gazteleraz egiten dutenak datoz jarraian (%22,9).

EGUN, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DIO AMAK SEME-ALABEI? ETA AMEN EUSKARA GAITASUNA

	Euskalduna	Ia Euskalduna	Guztira
Beti euskaraz	46,5	0,0	35,5
Gehiago euskaraz	16,0	2,1	12,7
Bietan antzera	11,5	6,3	10,3
Gehiago gazteleraz	21,8	52,1	28,9
Beti gazteleraz	4,2	22,9	8,6
Beste hizkuntza bat	0,0	16,7	3,9
Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.




Aiten artean amen artean baino gehiago dira beti euskaraz egiten dutenak (%44,9) eta amen proportzio antzekoan, bigarren lekuan gehiago gazteleraz egiten dutenak (%30,5).

EGUN, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DIO AITAK SEME-ALABEI?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Beti euskaraz	145	44,9
Gehiago euskaraz	30	9,4
Bietan antzera	32	9,9
Gehiago gazteleraz	98	30,5
Beti gazteleraz	13	3,9
Beste hizkuntza bat	4	1,3
Guztira	322	100,0

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.




Aita elebidunen artean, beti euskaraz egiten du %60,6k eta ondoren euskararen presentzia gutxitu ahala gutxitzen dira proportzioak. Aita ia euskaldunen artean %13,2k beti egiten du euskaraz, multzo nagusia gehiago gazteleraz egiten dutenak direlarik (%72,6).

EGUN, ZEIN HIZKUNTZATAN HITZ EGITEN DIO AITAK SEME-ALABEI ETA AITEN EUSKARA GAITASUNA

	Euskalduna	Ia Euskalduna	Guztira
Beti euskaraz	60,6	13,2	44,9
Gehiago euskaraz	13,4	1,9	9,6
Bietan antzera	13,4	1,9	9,9
Gehiago gazteleraz	9,7	72,6	30,3
Beti gazteleraz	1,9	8,5	4,0
Beste hizkuntza bat	0,9	1,9	1,2
Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.




Guraso euskaldunen hautemateen arabera, nagusiki ez dago alderik umea izan dutenetik euskararen erabileran (%57,3). Baina, aldea izan denean, nabarmen euskaren alde izan da eta proportzio altuan gainera (%41,7).

OROKORREAN, BADAGO ALDERIK ZUENEAN EUSKARAREN ERABILERAN, ORAIN DELA 2-3 URTEKOAREKIN KONPARATUTA? ETXEAN*

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Euskara gehiago hitz egiten dugu	78	41,7
Berdin	107	57,3
Euskara gutxiago hitz egiten dugu	2	1,0
Guztira	187	100,0

Iturria: 2015eko gurasoen hizkuntzekiko iritzi, jarrera eta kezakak.
Guraso euskaldunei egindako galdera




